DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekialdeko Barrutia
Distrito Este

# Ekialdeko BARRUTITIK

Altza · Intxaurrondo · Miracruz-Bidebieta

6. MARTXOA MARZO 2023

Ekialdeko Barrutiko lauhilabetekaria
Publicación cuatrimestral del Distrito Este
www.donostia.eus



# Giro ederra Altza auzoan Eltze Festan

Hotza ez zen oztopo izan konpartsek eta auzoko bizilagunek kaleak alaitasunez betetzeko. Guztira 23 konpartsek desfilatu zuten Altzako kaleetan.

Konpartsak Lau Haizetan desfilatzen hasi ziren eta Herrerako pasealekuan amaitu zuten, Txapinene, Larratxo pasealekua eta Altza pasealekua ibiliz. Desfilean Aitor Ikastola, Alegría de Alza, Coco Dance, Eclipse, Erriberatarrak Konpartsa, Eureka, Fama, Furius, Intxaur – Txiki, Gurea, La Salle, Lagun Artea, Lezoko Eztandak, Mystic, Odissey, Salai, Santa Bárbara, Showtime, Thamessis, Titanes Tóxic eta Txasiss konpartsek parte hartu zuten.

Martxoaren 4ko Bidebietako desfilearekin amaiera eman zitzaien aurtengo inauteriei.

### GRAN AMBIENTE EN ALTZA EN SU DOMINGO DE PIÑATA

El frío no fue un impedimento para que las comparsas y todas las personas que se acercaron a ver el desfile llenasen las calles de alegría. Fueron 23 las comparsas que desfilaron por las calles de Altza.

Las comparsas empezaron a desfilar en Lau Haizeta y terminaron en el paseo de Herrera, pasando por Txapinene, paseo de Larratxo y paseo de Altza. El desfile contó con la participación de las comparsas Aitor Ikastola, Alegría de Alza, Coco Dance, Eclipse, Erriberatarrak Konpartsa, Eureka, Fama, Furius, Intxaur – Txiki, Gurea, La Salle, Lagun Artea, Lezoko Eztandak, Mystic, Odissey, Salai, Santa Bárbara, Showtime, Thamessis, Titanes Tóxic y Txasiss.

El desfile celebrado el 4 de marzo en Bidebieta puso el punto final al carnaval donostiarra.

# 6,3 millones de euros para inversiones en el presupuesto de 2023

## El Ayuntamiento ha aprobado el presupuesto para 2023, que contempla realizar inversiones por valor de 6,3 millones de euros en diferentes proyectos para el Distrito Este.

Además, el Ayuntamiento ha adquirido diferentes compromisos presupuestarios hasta 2025 por valor de 16,8 millones de euros. Compromisos que, entre otros, permitirán la construcción del equipamiento deportivo de Merkaer, la Regeneración Urbana de Altza o la realización de mejoras en el Hogar del Jubilado de Casa Nao.

### 13 proyectos de mejora en el Distrito

Son 13 los proyectos que el Ayuntamiento tiene previsto iniciar a lo largo del año con el objetivo de mejorar distintas zonas del Distrito. Entre otros, un espacio de juego cubierto en Intxaurrondo, un nuevo parking junto a Tomasene, la mejora del punto crítico de Herrera o el desarrollo de la iniciativa Donostia Apain en Bidebieta.

### Fondos Next Generation

La llegada de fondos procedentes de la Unión Europea permitirá llevar a cabo el proyecto de Regeneración Urbana de Altza. Una actuación de 12,4 millones de euros (9,45 serán aportados por el Gobierno Vasco), que permitirá rehabilitar fachadas y cubiertas de las edificaciones del barrio, la instalación de placas solares, así como la mejora de la accesibilidad a distintas zonas y la regeneración de los espacios verdes existentes.

Estos fondos permitirán a su vez dotar al Frontón de Bidebieta de una instalación fotovoltaica para mejorar su eficiencia energética y comprar libros y fondos para ampliar las casas de cultura del Distrito. El presupuesto municipal contempla 25.000 euros para mejorar el servicio de vídeo de Larrotxene, que reabrirá sus puertas en abril tras una obra de remodelación en la que el Ayuntamiento ha invertido 830.000 euros.

**6,3 MILIOI EURO 2023KO AURREKONTUAN INBERTSIOAK EGITEKO**

Udalak 2023rako aurrekontua onartu du, Ekialdeko Barrutirako hainbat proiektutan 6,3 milioi euroko inbertsioak egitea aurreikusten duena.

Gainera, 458.383 euroko partida bat aurreikusten du aurten Udalak, Barrutiko Batzarrak proposatu eta onartutako hainbat proiektu garatzeko. Proiektu horiei esker, besteak beste, euskararen erabilera indartu, Barrutiko hainbat gune egokitu eta berdintasunerako neurriak eta proposamenak lantzen jarraituko da.

Udalak 16,8 milioi euroko aurrekontu-konpromisoak ere hartu ditu 2025era arte. Konpromiso horiei esker, besteak beste, Merkearreko kirol-ekipamendua eraikiko da, Altzako hiri-berroneratzea egingo da eta Casa Nao zahar-etxean hobekuntzak egingo dira.

*Tomasene Kultur Etxea*



*Herrera-Trintxerpe lotunea*



## Ba al zenekien? | Sabías que...

**Ekialdeko Barrutiak Berdintasun Lan Talde bat duela?** 2019an sortu zen, Barrutiko errealitateak kontuan harturik, feminismoen eta berdintasunaren inguruko hausnarketak eta ekintzak bultzatzeko helburuarekin.

**Se han puesto en marcha varias iniciativas y medidas que tienen como base el feminismo?** La escuela de empoderamiento, reconocimiento de las aportaciones de las mujeres en los barrios e iniciativas para promover las redes entre mujeres.

**Ezagutu gehiago Barrutiaren Berdintasun Lan Taldearen inguruan:**

### Proyectos impulsados por la Junta del Distrito

El presupuesto para 2023 del Ayuntamiento contempla, además, una partida de 458.383 euros para desarrollar diferentes proyectos propuestos y aprobados por la Junta del Distrito. Proyectos que, entre otros, permitirán, reforzar el uso del euskera, acondicionar distintos espacios del Distrito y seguir trabajando medidas y propuestas para la Igualdad.

PROIEKTUAK PROYECTOS Ekialdeko BARRUTITIK

| | |
|---|---|
| Cubierta del parque infantil en Larratxo | 77.000 euros |
| Consolidación de la celebración Gau Beltza en Altza e impulso en Intxaurrondo | 5.000 euros |
| Refuerzo del uso del euskera en verano entre el alumnado, complementando las actividades en julio en las escuelas | 16.000 euros |
| Programa bienvenidos a la ESO | 16.000 euros |
| Arkaltza | 7.000 euros |
| Teatro en euskera en la calle | 15.000 euros |
| Adecentamiento de senderos hacia Ulia | 6.000 euros |
| Potenciación de los cursos en euskera en los centros culturales | 17.000 euros |
| Inventario de vertederos ilegales | 18.000 euros |
| Acondicionamiento del campo de voley de Herrera | 18.000 euros |
| Diseño de los foros de participación infantil y juvenil | 18.000 euros |
| Medidas propuestas por el Grupo de Trabajo para la Igualdad | 70.000 euros |
| Maletín de traducción para uso de asociaciones del distrito | 16.998 euros |
| Anteproyecto de recuperación urbana del vial Herrera-Buenavista | 18.000 euros |
| Espacio de diálogo seguro con la juventud sobre sus emociones e inquietudes | 18.000 euros |
| Plan comercial para el Distrito Este | 18.000 euros |
| Mejora de la calidad del arbolado del Paseo de Larratxo, plantación de frutales y ampliación del alumbrado de los caminos Artxipi y Txurdiñene | 95.000 euros |

### Desarrollo de proyectos ya iniciados

Los proyectos citados no serán los únicos que verán la luz a lo largo de 2023 en el Distrito. El Ayuntamiento continúa con el desarrollo de proyectos cuya tramitación inició a lo largo del año pasado. Estos son algunos de los proyectos que se irán materializando: la conexión ciclista de Bidebieta con el bidegorri de Gomistegi; el circuito de Pumptrack para bicicletas de Arrobitxulo; el inicio de las obras del parque de Bidebieta; y el proyecto para el parque Sorleku.

*Bidebietako parkea*



## ERAKUSLEHIOA

### EZAGUTU BARRUTIAREN FUNTZIONAMENDUA

Udal hauteskundeekin batera, Ekialdeko Barrutiko Batzarra berritzeko garaia ere gertuago dago, 19 kidek osatzen dutena. Udal korporazio berria osatu ondoren, alkateak Barrutiko Batzarreko zinegotzi-buru eta zinegotzi-buruorde berriak izendatuko ditu eta ondoren, gainerako kideen izendapenak egingo dira. Udalean ordezkaritza duten talde politikoek 7 kide proposatuko dituzte, barrutian izandako emaitzak proportziotzat hartuz.

Auzo elkarteetako eta arloko entitateetako kideen kasuan, hauteskunde bidez hautatuko dira eta deialdia Alkatetzaren Erabakiz egingo da, Udal Korporazioa osatu eta 3 hilabeteko epearen barruan. 15 eguneko epean, Ekialdeko Barrutian egoitza duten eta udal entitateen erregistroan gutxienez urtebete daramaten auzo elkarteek eta entitateek beren hautagai izango den pertsona aurkeztu ahal izango dute.

Bozkatzeko eskubidea Barrutian egoitzan duten auzo elkarteko eta arloko entitateetako presidente edo ordezkari izendatuek izango dute, bakoitzak dagokion zerrendako hautagai bati bozka ematea izango duelarik. Hurrengo osoko bilkuran, barrutiko kide izendatuko dira boto gehien izan dituzten ordezkariak. Horrekin, Batzarraren eraketa-bilkura egingo da eta Batzar berria lanean hasiko da.

### CONOCE EL FUNCIONAMIENTO DEL DISTRITO

Coincidiendo con las elecciones municipales, se acerca también la renovación de la Junta del Distrito Este, formada por 19 miembros. Una vez constituida la nueva Corporación Municipal, el Alcalde nombrará a los nuevos Concejal Presidente y Concejal Vicepresidente de la Junta de Distrito, procediéndose posteriormente a la designación del resto de miembros. Los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento propondrán 7 miembros, según los resultados obtenidos.

En el caso de los miembros de asociaciones vecinales y entidades sectoriales, serán elegidos mediante elecciones y convocados por Resolución de Alcaldía en el plazo de 3 meses desde la constitución de la Corporación Municipal. En el plazo de 15 días, las asociaciones vecinales y entidades con sede en el Distrito Este que lleven al menos un año en el registro municipal de entidades podrán presentar a la persona que vaya a ser su candidata.

Tendrán derecho a voto las personas que ostenten la Presidencia o Representación designada de las asociaciones vecinales y entidades sectoriales que tengan su sede en el Distrito, pudiendo votar cada una de ellas a una de las candidatas de la lista correspondiente. En la próxima sesión plenaria se designará como miembros de la Junta a los representantes que hayan tenido mayor número de votos. Con ello se celebrará la sesión constitutiva de la Junta y ésta comenzará a trabajar.

Altza

## NUEVO LOCAL DEL DISTRITO ESTE EN ALTZA

**La Junta de Gobierno Local ha aprobado adjudicar a la empresa Unebide Obras y Contratas, S.L. el contrato de las obras correspondientes al proyecto de ejecución y actividad para el acondicionamiento del local del Distrito Este en el barrio de Altza. El contrato tiene un plazo de ejecución de 6 meses y un presupuesto de 393.942 euros.**

La actuación se llevará a cabo en la mitad sur del local situado en planta baja del portal 17 de plaza Harrobieta, que cuenta con una superficie de actuación de 250 m2. El programa de oficinas se compone de diversos espacios: una sala para oficina de atención al público de Udalinfo con 3 puestos de atención ciudadana y una zona destinada la sede del órgano de gobierno de la Junta del Distrito Este.



Bidebieta

## APROBADO EL PROYECTO DE LA VÍA CICLISTA ENTRE PASAI SAN PEDRO Y BIDEBIETA

**La Junta de Gobierno Local ha aprobado el expediente de contratación de las obras correspondientes a la modificación de la actualización del proyecto de la vía ciclista entre la avenida de Pasai San Pedro y Bidebieta. El presupuesto de licitación es de 513.359 euros y el plazo de ejecución es de 4 meses.**

El trazado comienza en las proximidades de la calle Azkuene dentro del ámbito municipal de San Sebastián. El trazado discurre por la avenida Pasai San Pedro (tramos por la calzada y tramos por la acera), hasta llegar a la calle Colombine. En ese punto discurre por una zona de coexistencia, hasta conectar con la avenida Joan XXIII, en Bidebieta.

La longitud total es de 455 m y en sus primeros 300 metros es exclusivo para ciclistas, con una anchura de 2,50 m en la mayor parte del trazado. Entre el PK 300 y 400, la sección es de coexistencia entre peatones y ciclistas, y en los 50 metros finales, existirá también una coexistencia con vehículos motorizados que acceden a garajes.



Intxaurrondo

## ARTZAK ORTZEOK ELKARTEAK JASO DU DONOSTIA EGUNEKO BANDERA

**Artzak Ortzeok elkarteak 100 urte bete zituen 2021ean. Mendeurrena dela eta Udalak Donostia Egunean Konstituzio plazan igotzen den bandera emateko erabakia hartuta zuen, baina Covid19ak eragindako pandemiak Donostia Eguneko ospakizunik gabe utzi zuen hiria. Bandera eskaintza hau Donostia eguna ospatzeko aukera izan arte atzeratu zen eta elkarteak aurten jaso du bandera.**

Artzak Ortzeok elkarteak sukaldaritza, kirola, kultura eta beste hainbat esparrutan lortu du erreferentzialtasuna eta elkartearen Danborrada ere hiriko zaharrenen artean dago, 1956an sortu zena. Horregatik eta urte hauetan egindako lan guztiagatik jaso du elkarteak errekonozimendua. Bandera Donostiako alkateak, Eneko Goiak, eman zien elkartera egindako bisitan.

Altza

## MERKAER EREMUKO FUTBOL ZELAIAREN PROIEKTUA ONARTU DA

**Tokiko Gobernu Batzarrak Altzako Merkaer moduluaren kirol instalazioa gauzatzeko proiektu eguneratua onartu du.**

Berrikuntza handia izango da. Kirol-eremu berri bat sortuko da, futbol-zelai batekin, errugbi-erabilera ere izango duena, eta zaharkituta dagoen Herrerako eremua hiri-inguruko eremu babestuago batera eramango da.

Horrez gain, aldagela zerbitzuetarako eta harmailetarako eraikin osagarri bat eraikiko da. Honek sei aldagela, epaileentzako aldagelak, mantentze-lanetarako eta kirol-materiala gordetzeko biltegiak, kudeatzailearen bulegoa eta komun publikoak izango ditu. Harmailak 209 eserleku estaliak izango ditu.

Eremuari zerbitzua emateko, lur gaineko aparkaleku bat sortuko da, 69 aparkalekurekin, horietatik bi mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, eta beste hiru aparkaleku autobusentzako.



19.000 ale · 0,15 € aleko